

# UDALBILTZA<sup>®</sup>

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK 2002



EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

# **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA IDAHOKO ORDEZKARIEK EUSKAL HERRIAREN AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA ALDARRIKATZERI DELA ETA**

2002.ko martxoaren 23an

## **AGUR ETA OHORE IDAHOKO ORDEZKARIEI**

UDALBILTZAK bere esker ona agertu nahi die, Aberri Egunaren atarian, Idahoko Kongresuko ordezkariak eta, bereziki, Pete Cenarrusa eta David Bieter jaunei, Euskal Herriaren alde burutu duten ekimenarengaitik.

Oztopoak oztopo eta presioak presio, euskal hiritarren ahotsa jaso eta oihartzuna mundu zabalera eramanez dutelako.

Hainbeste eraso eta hainbat ulertezin jasaten ari den euskal gizartearentzat pozgarri eta eredugarri gertatzen delako Idaho bezalako Estatu bateko ordezkariak Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea. Euskaldunok harro sentitzen gera Ameriketara artzai joan zirenen oinordekoek beraien jatorria gogoan dutelako eta gure etorkizunaren bideak irekitzen laguntzeko prest daudelako.

UDALBILTZAK oso bere dituen hiru zutabe ditu Idahoko adierazpenak. Lehenengo, euskal hiritarren erabakimena, hau da, euskal hiritarrek nahi dutena izan behar duela eta izango dela Euskal Herria. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da inposaketa eta indarkeria oro desagertzea. Bigarren, hiritarrek bake giroan eta askatasun osoan bakarrik erabil dezakete egoki beraien erabakimena. Eta hirugarren, elkarrizketa dela arazo politikoak bideratu eta konpontzeko bidea.

Bakea, elkarrizketa eta euskal hiritarren borondatea errespetatzea, horixe da behin eta berriro UDALBILTZAK aldarrikatzen duen mezua.

Horregaitik, gure eskerrik beroena agertu nahi diegu Idahotarrei, hango euskal hiritarrei eta bihotz bihotzez esker mila Cenarrusa eta Bieter jaunei. Izan ere eman du eta zabaldu du bere fruitua Gernikako Arbolak.

Euskal Herrian, 2002.ko martxoaren 23an

## **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA BATZAR NAGUSIAREN AURREAN**

2002.ko apirilaren 13an

Euskal Herria osatzen duten lurralde desberdinetako udal hautetsi euskaldunak gara. Euskal Herria, Pirinio Atlantikoen bi aldeetara dauden bi europar estatuetan kokaturik dagoen herria da, horietako batean bi errealitate autonomikotan zatiturik eta bestean errekonozimendu administratiboa bera ere izan gabe.

1986tik Euskal Herri osoa da Europar Batasunaren partaide. Eta honek zera esan nahi du, alegia, moneta bakarra izateaz gain, geroz eta legedia gehiago duela amankomunean, eta bai pertsonak, bai merkantziak edo kapitalak, era askean mugitzeko esparrua finkaturik duela. Hala ere, Europar Batasunaren partaide diren estatuak ez dute euren baitan dituzten nazio errealitateen ezagutza, garapena eta egituraketa onartu nahi. Oso bestalde, nahiago izan dute "goitik amore emateari" kontra egitea, soberania galtzea dakarkielako, eta apropos "barrura begira trinkotzea", elkarbizitza kolektiborako ereduak inposatuaz.

XXI. Mendearen hasieran eta europar testuinguruan kokaturik, oinarri demokratikoen alde egin dugun apustua estrategikoa eta behin betirako egina da.

Gaur egun espainiar eta frantziar marko juridiko-politikoak itxuraz erabat blindaturik daude nazio-aniztasunaren egiazko errekonozimenduak ekarriko lituzkeen aldaketen aurrean. Gure helburua argi dago: oztopoak gainditu eta aipaturiko markoetan ateak zabaltzea, demokrazia sakonduz eta areagotuz eta, hiritarren gehiengoaren babesarekin, egitasmo bideragarri eta konkretuen bitartez marko juridiko-politiko berri baterantz trantsizioa egitea.

Hemen eta orain, Euskal Herriarentzat aurkeztzen den erakundetze prozesu edo egitasmo oro oinarri soilki demokratikoz gidatua behar du izan. Marko mugiezinen inposaketa edo indarrez eginiko atxikimendu prozesuak guztiz bateraezinak dira guk bultzatu nahi dugun estrategiarekin.

Hegoaldeko lau lurraldeetan udal hauteskundeak ospatzeko urte bete falta den honetan, Udalbiltzan bildurik gauden hautetsiok zera adierazi eta berretsi gura dugu:

Zenbait euskal lurraldetan, gure nortasun kolektiboaren oinarri diren zenbait elementu, euskara adibidez, utzikeria edo jazarpen instituzionala sofritzen ari direla. Guk ezin dugu onartu eta ez dugu ametituko. Guztion betebeharra da hori ez onartzea, bai Udalbiltzarena, bai euskal hautetsiena eta baita beste zenbait erakunderena ere, hala nola, Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritza.

Esan izan da, eta egia da, hainbat arlotan herririk solidarienetarikoa garela: organoak ematen, herrialde txiroei laguntza eskaintzen, garapenerako elkarlan egitasmoetan... Eta, hala ere, erabaki politikoak direla medio, euskaldunon arteko harremana, elkartasuna eta arduren banatzea galarazi nahi digute. Herri modura, gure izatea eta gure biziraupena galarazi nahi da.

India, Afrika edo Ertamerikako egitasmo eta herriekin kolaboratu dezakegu, eta hori beharrezkoa da, baina ezin dugu gauza bera egin Zuberoan, Ezkerraldean, Bidasoan, Trebiñon edo Nafarroan. Zergatik ez? Ez al gara ba, herri bakar baten partaide?

Euskal hiritargo osoarentzat onuragarri ez den zer beste ondorio eratorriko litzateke euskal lurralde eta udalerrri desberdinen arteko egiazko elkarlan esparruetatik?, hau da, zein kalte sortzen da azpiegitura mailan, lurralde ordenazioan, ingurugiroan, hezkuntzan, ekonomia edo industria sustapenean edo hizkuntz eta kultur politiketan egiten diren lanetatik?

Baliabide ekonomikoak, garrantzitsuak izanik ere, bigarren mailakoak izango dira baldin eta determinazioa eta konpromezua erakusten ez baldin badugu.

Udal hautetsi gara. Alkate edo zinegotzi soil modura pentsatu eta ekin beharren, jardun dezagun euskal hautetsi modura. Izan ere, egitura politiko bateratuen inguruko formulazio teorikoak alde batera utzita, behetik gora eraikitzen diren nazioak, alegia, errespetua eta elkartasuna abiapuntu modura harturik oinarri asoziatibo eta federatiboak bereganatzen dituzten nazioak, ez baitira ahultzen eta zatitzen, oso bestalde, geroz eta indartsuago eta sendoago ageri dira.

Gizabanako guztien oinarrizko eskubideen defentsa geureganatuz eta gure herrian ageri diren aukera eta tradizio politiko guztien errespetutik,

Oinarri sendo eta egiazkoen gain ezarritako egitasmo politikoa proposatzen dugu, argi dakusagularik eraldaketa sozial eta politikorako egitasmoek ezinbesteko dituztela plangintza, heldutasunera iristeko denbora, gizartearen konfidantza eta euskal hiritarren borondatezko atxikipena.

Euskadi-Euskal Herriari subirotasun markoa eskaintzeko helburua eta konpromisoa geureganatzen dugu, bertan gure herriak bere erabakiak hartzeko ahalmena bermatua izan dezan mundu globalizatu eta elkarlotu honetan. Gure borondatea, zentzu honetan, estrategikoa da, eta era berean da estrategikoa bide soilik demokratiko, baketsu eta politikoen alde egiten dugun hautua.

Euskal Herrian. 2002.ko apirilaren 13an

## **EUSKADIKO LEGEBILTZARREAN PARTE-HARTZEA EUSKAL HERRIA: ATZO, GAUR ETA BIHAR**

2002.ko ekainaren 12an

Jon Jauregi, Udalbiltza lehendakariaren, Euskadiko parlamentuaren autogobernu komisioren aurrean partehartzea: "EUSKAL HERRIA: ATZO, GAUR ETA BIHAR"

Aldez aurretik nire eskerrik beroenak adierazi nahi nizueke, UDALBILTZARI luzatu diguzuen gonbidapenarengatik, Eusko Legebiltzarreko Batzorde honetan, Euskadiren Autogobernuari buruzko Batzorde honetan, gaur egun Euskadi-Euskal Herriaren errealitateari buruz geure ikuspuntua eta hausnarketa adierazi eta azaltzeko.

Duela 20 urte baino gehiago, gaur egun ezagutzen dugun Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea sortu ziren Euskal Herriko hegoaldean. Garai horretan, frankismo sistema faxistatik ateratzen hasi ginen; askatasun minimoak berreskuratzen hasi ginen; gure hizkuntza propioa, euskara, frankismoak hilzorian utzi zuena, berrindartzen hasi ginen; ekonomi autarkiko eta ahul batekin aurkitu ginen, hurrengo urteetako krisiak erakutsi ziguten bezala; geure industria eta enpresa sarea berri eta berrindartu behar izan genuen, oso koste handiarekin; geure kultura suntsituta eta zapaldua zegoen; gure gizartearen ongizatea kolokan aurkitzen zen, gizartearen sektore askok behar bezalako babesa eta laguntza jasotzen ez zutelarik; eta Europa Ekonomi Elkartetik, naiz politikoki, naiz ekonomikoki, oso urrun ginen, Europaren proiektua bera benetako funtsezko aurrerapausoak egitear zeudelarik.

Hogei urte baino gehiago igaro dira harez geroztik. Mendebaldean bereziki, gizartearen bilakaera, politika, ekonomia, kultura, komunikazioak, eta abar geroz eta azkarrago doazen gizarte honetan, erabat bidezkoa eta aproposa ikusten dut, geldialdi bat egitea eta hausnarketa sakon bat egitea, nondik gatozen eta nora goazen aztertzeko. Beti ere jakinda, giza-eskubideak, askatasuna, demokrazia, herri eraikuntza, elkartasuna, garapen ekonomiko orekatua, ingurugiroaren errespetua eta hiritarren ongizatea gure

ardatz nagusiak direla, noski, guk, euskaldunen eta gugandik, naiz gertu edota urrun bizi diren herrien onenerako.

Ardatz nagusiak aipatu berri ditudan ideia horiek baldin badira eta hiritarrok, gure kasuan, euskaldunok, gure gizartearen antolakuntza politikoaren bihotzean bagaude, horrek esan nahi du, argi eta garbi antolakuntza politiko horiek gizartearen nahi eta borondate arduratsura egokitu behar direla; eta beraz, gaur egun egon daitezkeen sistema eta markoek mugitu eta aldatzea posible izan behar dela. Marko juridikopolitikoak pertsonen mesederako daude eta ez alderantziz; marko juridikopolitikoak tresna batzuk besterik ez dira pertsonen onenerako; marko juridikopolitikoek herri batek askatasunez eta arduraz norberari eskaintzen dion antolakuntza modu bat besterik ez dira; marko juridiko-politikoak pertsonak eta hiritarrek askatasunez eta arduraz adierazten duten borondatera egokitu behar dira; marko iuridiko-politikoak herri baten eta herri hori osatzen duten pertsonen erabakiaren menpean egon behar dira.

Gaur egungo Europaren eraikuntzak gogoratu digu, berriro ere, zeintzuk diren gizarte bat eraiki eta osatzeko erabili behar diren zutabe eta printzipio nagusiak: alde batetik, atxikipen aske eta arduratsua; eta bestetik, imajinazio edo asmakizun politikoa, osatu nahi den antolakuntza berri hori herriaren borondatera eta errealitatera egokitzeko.

Askotan saiatu dira Europaren batasuna eraikitzen, ez da azken 50 urtekoa kontua bakarrik izan. Napoleon edota Hitler, adibide batzuk aipatzeko, saiatu ziren. Baina bi pertsonaia hauek ez zuten herrien atxikipen printzipioa errespetatu, indarra erabili baitzuten eta beraien proiektua inposatu nahi izan zuten; eta ez zuten Europa libre bat eraiki nahi, baizik eta inperio inposatzaile bat.

II. Mundu Gerraren ostean agertu den Europaren proiektuak, aldiz, bi printzipio horiek errespetatu ditu. Eta, egin daitezken kritika guztiakin ere, dauden hutsune guztiak kontuan izanik, ala ere, esan dezakegu saiakera arrakastatsua izaten ari dela.

1951ean, Robert Schuman-ek, garai hartako frantziar atzerri ministroak, Alemaniari altzairu eta ikatza komunitate bat osatzea proposatu zuenean, Europa askeko beste herriei ere gonbitea luzatu zien, inposizioaren asmoa eta izpiritua baztertuz. Ados zeuden herriek, komunitatea osatu zuten. Ados ez zeudenak, ez zitzaizkion komunitateari atxiki. Eta azkeneko urteetan zehar izan dira herri batzuk Europako Komunitatean sartu direnak, sartu nahi dutenak eta

beste batzuk nahi izan ez dutenak. Beti ere, beraien erabaki librea errespetatuz.

Aldi berean, esan beharra dago, Europar Batasuna ez dela nazioarteko erakunde arrunta, ezta ere Super-Estatu bat. Ez bata eta ez bestea. Europaren eraikuntzan egon ziren politika gizon-emakumek, giza-eskubideen eta demokraziaren printzipioak kontuan izanik, imajinazioa eta ausardi politikoa izan zuten gurutze-buru antolakuntza politiko berri eta original bat eraikitzeke; asmakizun politikoa izan zuten, Europa baketsu eta aurrerakoi bat osatzeko; ingenieritza politikoa, garai horretan zeuden marko juridiko-politikoak aldatzeko eta antolakuntza politiko berri bat eraikitzeke, herrien eta hiritarren nahiak lortu eta errespetatzeko; XIX. mendeko Estatu-nazio kontzeptua aldatu eta herrien arteko antolakuntza politiko berri bat eraikitzeke; XIX. mendeko Estatu-nazio borrokatzaileak, herri kooperatibo eta kolaboratzaile bihurtzeko helburuarekin.

Europa ez da nazioarteko erakunde arrunta, zeren eta hiritarren eta herriengan eskubideak eta obligazioak erabakitzen baititu, bere instituzio propioen bidetik. Eta ez da Super-Estatu bat "konpetentzia edota eskumen orokor" bat ez duelako, baizik eta europar itunek aipatzen dituen eskumenak soilik.

Atxikipen librea eta ingenieritza eta imajinazio politikoa, beraz gizarte eta herri bat antolatzeko; atxikipen librea eta asmakizun politikoa herrien arteko harremanak antolatzeko; atxikipen libreak, bere baitan eta berez, giza eskubideen errespetua eskatzen du; eta honekin lotuta, sortu nahi den antolakuntza berri batek herrien borondatea eta erabakia errespetatzea exijitzen du Idei guzti hauek aipatzen badizkizuet da UDALBILTZAREN proiektua sustengatzen duten printzipioak direlako hain zuzen ere.

Gure ekimenak aurrera ateratzeko zein oinarri zehatzagoetan txertatzen garen aipatu aurretik, Euskal Herriaren eraikuntza zergatik den beharrezkoa eta zilegia azaldu nahi dizuet, baita era Europaren eskutik.

Gaur egun, globalizazioaz eta mundializazioaz hitz egiten dugu. Eta neurri zabal batean, Europa ere ideia eta errealitate horren lekukoa da. Europaren eraginez Estatuak ezarrita dituzten mugak desagertzen doaz. Gaur egun ez du zer ikusirik Estatuaren errealitatea XIX. mendean sortu zen Estatu nazio errealitate, ideia eta kontzeptuarekin. Moneta bakarra dugu; ejertzitoek ez lukete XIX. mendean zuten papera izan behar. Pertsonen, produktoen eta zerbitzuen zirkulazio librea bermatua dago.

Europa zabal eta geroz eta batuago batetan, muga artifical asko desagertzen doaz. Eta horren bidez, komunitate eta herri naturalak bere benetako dimentsioa hartzen ari dira. Naturaltasun osoz; espontaneoki; zilegitasun osoz; eskubide osoz.

Euskal Herriaren kasua nabaria da. Mendeetan zehar, Euskal Herria, euskaldunok, bi estatuaren artean banatuta egon gara. Mugak desagertu ahala, naturaltasun osokoa da euskaldunen arteko harremana eta elkartasuna garatzea. Hizkuntza bat dugu, euskara, eta herri bat osatzen dugu; herrialde bakoitzak bere ezaugarriak dituela; herrialde bakoitzak bere errealitateak abiatuz; baina eskubide osoz gizarte bateratu bat osatzeko eta gure politika, kultura, ekonomia garatzeko eskubidearekin. Gizarte eta herri orekatu eta ireki bat, gure inguruan dauden herriekin harreman baketsu eta kooperatiboak garatuz.

Europaren eraikuntza eta Euskal Herriaren eraikuntza koherenteak, konpatibleak eta osagarriak dira erabat. Globalizazioak eta Europaren eraikuntzak beste maila integratu eta indartsu batzuk eskatzen ditu. Eta integratu eta indartsu izateko komunitate naturalek dute paper nabari bat. Horietako bat Euskal Herria da: gure elkartasunarengatik; gure nortasun nabaria izanagatik ere besteei irekiak gaudelako; gure hizkuntza eta kulturarengatik; gure dinamismo ekonomikoarengatik; eta gure gizarte ereduarengatik.

Guzti hau kontutan izanik, guk, Euskal Herria bi mila udal hautetsi baino gehiagok, Bilboko Euskalduna Jauregian, UDALBILTZA sortu genuen 1999ko irailaren 18an, ezaugarri hauekin:

Udal izaera duen erakundea, hau da, hiritarrei eta oinezkoei itsatsia dagoen erakundea, herritarren zerbitzuan dagoena eta herri honen euskarri politiko, ekonomiko, kultural eta sozial dena, gure historiaren une garrantzizko askotan probatu den bezala; Udal izaerako erakunde, baita ere, udal erakundeak homologatuak

daudelako eta euskal lurralde guztietan tinko erroturik daudelako. Beraz, Euskal Herriaren lurraldetasunaren lekuko da UDALBILTZA, eta bere izate nazionala, kulturala eta hizkuntzazkoaren adierazgarri, nahiz eta gaur egun Euskal Herria politikoki bi Estatuan kokatutako hiru komunitate administratibotan zatiturik egon eta, ondorioz, egoera sozio-ekonomiko desorekatu eta deskonpesatu batean aurkitu; Erakunde demokratikoa eta guztiz zilegia, UDALBILTZA osatzen dugun alkate eta hautetsiak hauteskundeetan hiritarrek hautatuak izan garelako, gure hautesleak ordezkatzeko eskubide osoa daukagulako eta, Euskal Herria osotasunean harturik, gure ekimenak eta egitasmoak elkarrekin, auzolanean, ahalbideratzeko zilegitasuna dugulako;

" Erakunde modernoa eta europeista, gero eta hurbilago eta irekiago bilakatzen ari den European berariazko komunitate eta hiritarren asmoak muga artifizialen gainetik, aintzakotzat hartzen direlako eta jarrera horrek berak ere Herri bezala garatzeko euskaldunok dugun eskubidea areagotzen du.

Labur esateko, erakunde honen helburuak oso xume eta bidezkoak dira; udalen ekimenez eta eraginez Euskal Herriko lurralde ezberdinetako hiritarrek elkar ezagutzea, harremanetan jartzea, beraien gogoko ekimenak eta proiektuak elkarrekin bideratzen laguntzea; hots, Herri bezala eta norberaren ongizaterako egoki irizten dioten ekintzak askatasunez garatzeko aukera eskaintzea.

Beste era batera esanda eta gure sorreraren egunean genioen bezala:

"Euskal herriaren nazi o eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik, eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik".

Honen ildotik, azpimarratu nahi nuke, ideia honek nabarmen adierazten duela pertsona guztien oinarritzko eskubideen aldeko jarrera eta giza eskubideak urratzearen kontrako salaketa eraginkorra.

Hasera hasieratik, eraso ugari eta manipulazio andana nozitzea tokatu zaio UDALBILTZARI, indar politiko eta komunikabide espainiar eta frantziar batzuen aldetik. Ahaleginak eta bi egin zituzten UDALBILTZAK porrot egin zezan, gezurrezko ezaugarri eta posizionamendu politikoak egotziaz eta bere benetako adierazpen eta komunikazioak isilean gordez. Beraiek izan ziren, su-etenaren garaian distentsio giroa sendotu ordez, adibidez, presoak Euskal Herrira hurbilduz, oztopoak jartzen aritu zirenak, eta beraien tranpan jausi zen gero ETA, ulertezina badirudi ere.

Horregatik, berriro ere, aproposa iruditzen zait UDALBILTZAren oinarriko printzipioak zeintzuk diren gogora ekartzea, 2001. urteko Aberri Egunean esan genuen bezala:

1.- Printzipio gizabidetsuekiko eta pertsona ororen eskubide eta askatasunen defentsarekiko ezberrik gabeko konpromisoa.

Bizi izateko eskubidea eta gizabanakoaren duintasuna dira errealitatea, politika, gizartea eta gure nahiak eta proiektu estrategikoak interpretatzeko oinarri nagusiak.

Solidaritateagatik eta pertsona guztiek, salbuespenik gabe, gure duintasuna defendatzeko eskubidea dugun aldetik, gure herri eta auzo guztietan, biktima eta ETAren zentzu ezak mehatxatutako guztien ondoan gaude. Udaletako hautetsiak gara eta, bereziki, mehatxatutako zinegotzi eta beren senideen ondoan egon nahi dugu

2.- Gizartegintza eta aberrigintza lana bide demokratikoen erabilpenean, askatasunean eta hiritargoaren borondatean oinarritu beharra dago; alegia, bortxakeriaren erabilpena gaitzetsiz eta une oro eta salbuespenik gabe gizabanako guztien giza-eskubideak errespetatuz, baita askatasunaz gabetuen eskubideak ere ..

Bortxakeria eta aberrigintza bateraezinak dira. Bitartekoak eta helburuak ardatz berberak lotzen ditu: ekintza politiko eta demokratikoa.

ETAren bortxakeriak, etika eta moral aldetik, guztiz arbuiagarria izateaz eta bizikidetasuna apurtzeaz gain, bere etorkizunaren jabea izan nahi duen herria egiteko proiektua oztopatzea helburu duenaren strategiari laguntzen dio.

3.- Euskal hiritarrek osatzen dute Euskal aberria. Hiritarren borondatearen ekimen askeak ez ditu ez egoera mugiezinen inposaketa onartzen.

Europako herririk aspaldikoena izango, euskara dugu hizkuntza, europar historiaurrearen testigantza bizi bakarra. Horrez gain, bi Estaturen artean bizi I den herria osatzen dugu, bere nazio izatea behin eta berriro ukatua izateak sortu dituen ondorioak gainditu nahi dituen. Aipaturiko ondorioek, errealitate politiko eta kultural desartikulatuaz gain, garapen demokratiko eta ekonomiko desorekatua sortarazi dute.

4.- Askatasunaren aldeko izateak herri bat indartsu egiten duela eta gure arteko bortxakeria eta gizabanako nahiz talde mailako mehatxua desagerrarazten duela uste osoa izango, bakea da gure lehentasuna, eta aberrigintza eta gizartegintza gure legezko proiektua.

Historiaren zehar, lurralde eta ezaugarri sozio-kultural amankomun eta ezberdinen Euskal Herria gauzatu ditugu bertako bizilagunek, Atxurritik Ebrora bitartean. Ia hiru milioi hiritar gara, zazpi lurralde historikoetan banaturik, gaurko Euskal Herria osatzen dugunak.

Herri bezala bere nortasuna ukatzen dioten bi Estaturen artean kokaturik dago Euskal Herria eta, gaur egun, euskal hiritarrok ez daukagu erakunde politiko amankomunik. Euskal Autonomi Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateak autogobernu maila garrantzitsua berreskuratu badute ere, Iparraldeko hiritarrek ez dute oraindik beraien Departamendu propioak. Erakunde juridiko-administratibo amankomunik ez izateak gure kulturaren, gure identitatearen, gure ekonomiaren eta gizartearen garapen orekatua eragozten du.

Euskal Herriak 2.906.000 biztanle ditu gaur, Atxurritik Ebrora zabaltzen den 20.845 km<sup>2</sup>ko lurraldean banaturik. Euskal demografiak azken 150 urteotan eman dituen urratsak jarraitzea aski da, Euskal Herrian eta bere lurraldeetan gertatu diren mugimendu ekonomiko eta sozialak sumatzeko. Orduan, 1851an, 874.000 bizilagun zituen Euskal Herriak. Horien erdiak, 415.000 hain juxtu, egungo Euskal Autonomi Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeetan bizi ziren; 297.000 biztanle zituen Nafarroa Garaiak eta beste 162.000 lagun zituen Iparraldeak.

Orain, 150 urte geroago, 2.906.000 gizon emakumek osatzen du Euskal Herria, hau da, 1851 n baino bi milioi gehiagok. Euskal Autonomi Erkidegoko biztanleriak milioi eta erdiko hazkuntza izan du, Nafarroa Garaikoak 240.000 pertsona gehiago bildu ditu eta 100.000 gehiago Iparraldeak.

Horrela, XIXgarren mendean emigrante lurraldea zen Euskal Herria, batez ere Ameriketarako, inmigrazio hartzaile bilakatzen da XXgarren gizaldian, bereziki 1950-1975ko epealdian. Baina, emigratio-etorkin fenomenoak mugimendu asimetrikoak sortzen ditu Hegoaldean eta Iparraldean. Hegoaldeko lurraldeak hartzaile ziren bitartean, Parisera edo industrializatutako beste herrialde batzuetarako bidea hartzen zuen Iparraldeko gazteriak. Izan ere, demografiaren bilakaera guztiz ezberdina izan da lurralde batetik bestera. Adibiderik nabariena Nafarroa Beherea eta Zuberoarena dugu, bien ala biak biztanleria galtzen ari direlako 1851 z geroztik. Nafarroa Behereak 20.000 bizilagun gutxiago dira orain eta Zuberoak 9.000 galdu ditu harrezkero, gisa honetan bi lurralde hauen iraungaitasuna bera ere kolokan dagoelarik.

Gaurko egunean, euskal biztanleriaren %70 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan bizi da, % 18 Nafarroa Garaian eta beste %8 Iparraldean.

Garai hartako datu apurrek, 1866-1868ko euskal gizartea hizkuntza aldetik nolakoa zen irudikatzen laguntzen digute. XIX. gizaldiko amaieran gertaturiko lehen iraultza industrial eta demografikoaren aurretik 900.000 bizilagun zituen Euskal Herriak eta horietatik 370.000 ziren euskaldunak, hamarretik lau ziren euskaraz hitz egiten zutenak. Euskararen kopururik handiena Gipuzkoan, Bizkaian eta Iparraldean biltzen zen orduan.

Gaur, 2.900.000 hiritarretatik 650.000 dira euskaraz ondo dakitenak eta beste 420.000 euskaldun hartzaile direnak, 1996ko inkesta. Soziolinguistikako datuen ondorioz egindako estimazioen arabera. Beraz, gaur egun handiagoa da euskaldunen kopurua eta askoz ere handiagoa euskaldun hartzaileak kontutan hartu ezker, baina behera egin du, oso nabarmen, euskaldungoaren portzentaia, hauen portzentaia txikiagoa da / biztanleria osoan eta txikiagoa ere haien presentzia gizartean.

Euskara biziki eta etengabe ari da berreskuratzen Euskal Autonomi Erkidegoan. Askoz ere motelago eta geldiago ari da berreskuratzen Nafarroako Foru Komunitatean. Iparraldean, berriz, euskararen atzerakada etengabea da.

Euskal Autonomi Erkidegoko gazteen artean nabarmen egiten du gora euskaldunen eta euskaldun hartzaileen hazkundeak. Nafarroan ere gora egiten dute elebidunek eta elebidun hartzaileek, gazteen artean, baina Euskal! Autonomi Erkidegoan baino askoz ere apalago. Iparraldean alderantzizkoa gertatzen da. Gazteen artean guztiz nabaria da elebidunen beherakada eta erdara hutsaren gorakada.

Euskal ekonomiak europarrarekiko konbergentzia lortu du 2000garren urteko atarian. 90 hamarkadako dinamismo ekonomikoari esker, Euskal Herriko BPG per capita Europar Batasuneko batz bestekoaren mailara heldu da. Euskal ekonomiaren bilakaera historikoa, ordea, ezberdina eta asimetrikoa izan da lurraldeen artean eta ondorioz Euskal Herriko egitura produktiboa desberdina da zonalde batetik bestera.

Lehen sektoreak, batik bat nekazaritzak, pisu handiagoa du Nafarroa Garaia eta Iparraldean, Euskal Autonomi Erkidegoan baino. Industriak, aldiz, indar gehiago du Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroa Garaian, Iparraldearekin konparatuz gero. Hemen bere presentzia txikiagoa da, Euskal Herriko batz bestekoaren erdirainokoa.

Iparraldeko ekonomian askoz ere eragin handiagoa dute turismoak eta merkataritzak. Zerbitzuak dira bertako ekonomiaren heren bi.

Aktibitate tasa, hau da, okupatuak zati biztanleria osoa, apalagoa da Euskal Herrian, herrialde aurreratu eta dinamikoarekin alderatzen badugu.

Gizonezkoen aktibitate tasa gure alboko herrialdekoaren ingurukoa bada ere, emakumezkoen parte hartze tasa lan mundu ordainduan nabarmen eskasagoa da oraindik gurean. Gizonezkoan aktibitate tasa handiagoa da Hegoaldean Iparraldean baino, baina emakumezkoena handiagoa da azkeneko honetan aurrekoan baino.

Iraganean, muga estatalak Hegoaldeko eta Iparraldeko ekonomi garapen desorekatuaren eragile izan diren bezalaxe, bere desagerpenak aukera ezin hobea eskaintzen digu aurrerantzean elkarrekin auzolanean aritzeko.

Horiek dira, laburbilduz bada ere, gaur egungo Euskal Herriaren ezaugarri nagusienak.

Hegoaldeko lau lurraldeetan udal hauteskundeak egiteko urte bete falta den honetan, UDALBILTZAn bildurik gauden hautetsiok zera adierazi eta berretsi gura dugu:

Zenbait euskal lurraldetan, gure nortasun kolektiboaren oinarri diren zenbait elementu, euskara adibidez, utzikeria edo jazarpen instituzionala sufritzen ari direla. Guk ezin dugu onartu eta ez dugu ametituko. Guztion betebeharra da hori ez onartzea, bai UDALBILTZarena, bai euskal hautetsiena eta baita beste zenbait erakunderena ere, hala nola, Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritza.

Esan izan da, eta egia da, hainbat arlotan herririk solidarienetarikoa garela: organoak ematen, herrialde txiroei laguntza eskaintzen, garapenerako elkarlan egitasmoetan ... Eta, hala ere, erabaki politikoak direla medio, euskaldunon arteko harremana, elkartasuna eta arduren banatzea galarazi nahi digute. Herri modura, gure izatea eta gure biziraupena galarazi nahi da.

India, Afrika edo Ertamerikako egitasmo eta herriekin kolaboratu dezakegu, eta hori beharrezkoa da, baina ezin dugu gauza bera egin Zuberoan, Ezkerraldean, Bidasoan, Trebiñon edo Nafarroan. Zergatik ez? Ez al gara ba, herri bakar baten partaide?

Euskal hiritargo osoarentzat onuragarri ez den zer beste ondorio eratorriko litzateke euskal lurralde eta udalerrri desberdinen arteko egiazko elkarlan esparruetatik?, hau da, zein kalte sortuko da azpiegitura mailan, lurralde antolamenduan, ingurugiroan, hezkuntzan, ekonomia edo industria sustapenean edo hizkuntz eta kultur politiketan egiten diren lanetatik?

Baliabide ekonomikoak, garrantzitsuak izanik ere, bigarren mailakoak izango dira baldin eta determinazioa eta konpromisoa erakusten ez baldin badugu.

XXI. mendearen hasieran eta europar testuinguruan kokaturik, oinarri demokratikoen alde egin dugun apustua estrategikoa eta behin betirako egina da.

Gaur egun espainiar eta frantziar marko juridiko-politikoak itxuraz erabat blindaturik daude nazio-aniztasunaren egiazko errekonozimenduak ekarriko lituzkeen aldaketen aurrean. Gure helburua argi dago: oztopoak gainditu eta aipaturiko markoetan ateak zabaltzea, demokrazia sakonduz eta areagotuz eta, hiritarren gehiengoaren babesarekin, egitasmo bideragarri eta konkretuen bitartez marko juridiko-politiko berri baterantz trantsizioa egitea.

Hemen eta orain, Euskal Herriarentzat aurkezten den erakundetze prozesu edo egitasmo oro oinarri soilki demokratikoz gidatua behar du izan. Marko mugiezinen inposaketa edo indarrez eginiko atxikimendu prozesuak guztiz bateraezinak dira guk bultzatu nahi dugun strategiarekin.

Inposaketaren garaia amaitu da. XXI. mende hasiera honetan atxikipen libre eta demokratikoa, alde batetik, eta ausardia eta irudimen politikoa behar ditugu egitura politikoa biztanleen nahia eta borondatera egokitzeko. Gaur garena eta lortu duguna errespetatuz eta abiapuntu izanik. Herriek eta I gizarteek eboluzionatu egiten dute. Guk ere bai. Europak ere bai. Indarkeria eta Euskal Herriaren eraikuntza elkarkezina dira. Helburuek bezala bitartekoek ere oinarri berdina izan behar dute: ekintza politiko demokratikoa eta soilki demokratikoa. Heriotzaren estandarrea erabiltzen duenak, aurkari politikoa erailtzen duenak, hiritarren eskubideak mespretxatzen dituenak, ez du bizitzarik errespetatzen, ez ditu pertsona eta herrien eskubideak errespetatzen. Euskal Herriak ez du inor behar indarkeriaz bere ordezkaria hartuko duenik.

Ezinbestekoa da, eta lehenbailehen, benetako prozesu bat bultzatzeko eta garatzeko baldintza sozio-politikoak sortzea, betiere konponbide politiko demokratikoetan oinarriturik.

Euskal hiritarrek eskubide osoa dute, dugu, bakea eta normalizazio politikoa lortzeko. Iraganean porrot egindako estrategiak alde batera utzi behar dira.

Mila Esker

Gasteizen, 2002ko ekainaren 12an

## **HAUTETSIEN MANIFESTUA, ANIZTASUNAREN DEFENTSAN ETA ALDERI POLITIKOEN LEGE ORGANIKOARI BURUZKO EGITASMOAREN AURREAN**

2002.ko uztailaren 4an

Guk, bizitzeko eskubidearen eta beste oinarrizko eskubideen aldeko defentsan konpromiso argia daukagun hautetsiok, gure ordezkapen maila eta askatasun osoz hautatu gintuzten hiritarren nahia kontuan hartuz, gure iritzia eman nahi dugu Alderdi Politikoen Lege Organikoaren aurrean; izan ere, lege hori laster onartuko baita Madrilgo Gorte Nagusietan. Beraz, hauxe da gure iritzia:

1. Lege-proiektu horrek ideologia askatasunaren kontra egiten du zuzenean, proiektu politikoak defendatu eta zabaltzeko mugak jartzen ditu-eta. Bada, lege-ekimen horrek, sistema demokratikoaren ardatza dugun aniztasun politikoari eraso egiten dio; izan ere, alderdi politiko baten proiektuak daukan edukiaren arabera, alderdia bera legez kanpo utzi dezake.

2. Lege-proiektuan aurreikusten den mekanismoaren ardatza, lasterbide bat baino ez da talde politiko baten ez-zilegitasuna azaltzeko, kideren batek egindako delituak oinarri bezala hartuz. Mekanismo hori ez da demokratikoa, eta berarekin, ordenamendu juridiko-penala gidatzen duten bermeei iruzur egiten die; ez baita kontuan hartzen gizabanakoak direla, eta ez alderdi politikoak, delitu egiten dutenak.

3. Beraz, herritarron askatasun sistemaren aurkako beste kasu baten aurrean gaude. Halaber, zigor-legeri bat sortzeko ahalegin berria ikus dezakegu, baina ez hiritarrarentzat, berdin pentsatzen ez duenarentzat baino. Alabaina, horixe da gizarteak dituen arazoak konpontzeko eredurik txarrena.

4. Ez dugu inolaz ere onartzen, ETArek bortizkeriak sortzen dituen gizarte amorruek eta etsipenak, gurean bakea lortzen edo bizitza politikoa normalizatzen lagunduko ez duen proiektuaren onarpena ahalbidetzea. Aitzitik, egitasmo honek, bere aldarrikapen politiko guztiak, gero eta ahul eta baldintzatuagoa den sistema demokratikoaren barruan, ezin defenda dituztela adierazten dutenen argudioak indartuko ditu. Gainera, bide politikoa bide bakar gisa erabili nahi ez dutenen jarrera indartuko du, gizartearen indarrak

bilduko ditu, istiluak areagotuko ditu eta gizartea banatuko duen hazia hedatuko du.

5. Lege-proiektu horren zeregin nagusia (sakontasun eta garrantzi handiagoa duen estrategia gisa) ez da banakako edo taldekako delituzko jarreraren atzetik ibiltzea; baizik eta, bere helburua, gure gizartearen zati handi bat nahita ordezkapenik gabe uztea da.

Ondorioz, gure gizartearen gehiengoaren nahimena ordezkatzeko dugun heinean, Lege-proiektuaren sustatzaileei jarraian aipatzen direnak eskatzen dizkiegu:

a) Lege hori Espainiako gizartearen nahia ordezkatzeko den esparruan zehaztu eta erabaki da, baina gure gizartearen bizikidetasunari eragiten dio zuzenean. Beraz, gure herritar gehienaren nahimena errespetatu behar da; hots, erakunde, politika eta gizarte mailan antolatzen dena. Horrenbestez, Alderdi Politikoen Lege Organikoa berehala deusezteko exijitzen diegu.

b) Gizarte anitz eta integratu bat eratzeko gure konpromisoa bere gain hartzea erregutzen diegu; alde batera utziz gure herria benetan kolokan jartzen duten dinamika isolatzaile eta klandestinizatzaileak.

c) Zuzenbideko Estatuak eskaintzen dituen baliabideetatik delituak jarraitzeko aukerak konpromisoarekin bat egin dezaten eskatzen diegu; zehatz-mehatz errespetatuz botere banaketaren printzipioa. Halaber, denok ukitzen gaituen politika-normalizazio eta bizikidetasunaren gatazkari irtenbide bat emateko, funtsezko baliabide gisa, intolerantziarekin bateraezina den eta bazterketarik gabe burutu behar den elkarrizketaren aldeko apustu sendoa egin dezaten eskatzen diegu.

Euskal Herrian, 2002.ko uztailaren 4an

### **ERAKUNDEAREN 3. URTEURRENA DELA ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

2002 irailaren 18an

EZ DUGU SUFRIMENDUAREN LUZAPENAREN AURREAN, EZ ETA ENFRENTAMENDUAREN AURREAN BURUA MAKURTUKO. EUSKALDUNOK ESKUBIDE OSOA DUGU BAKEA ETA NORMALIZAZIO POLITIKOA LORTZEKO

Gaur, UDALBILTZAREN jaiotzaren hirugarren urteurrena ospatzen dugu. Eta gaur, atzo bezala, UDALBILTZAREN Zuzendaritza Batzordeak (EAJ-PNV/EA) gure lana oinarritzen duten printzipioak berretsi nahi ditugu: "Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik, eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik". Zazpi euskal herrialdeetako udal hautetsiak gara eta berezko historia eta borondatea izateaz gain, konpartituak eta era berean osagarriak diren lurralde, kultura, hizkuntza eta gizarte arloko errealitateak bateratzen dituen Herrian sinesten dugu.

Printzipio gizabidetsuekiko eta pertsona oroaren eskubide eta askatasunen defentsarekiko ezbairik gabeko konpromisotik abiatuak, errealitate horren barruan ikusten dugu gure burua eta ezagutza, elkarrekiko errespetua eta pertsona eta lurraldeen atxikimendu askearen aldetik, gero eta harreman estuagoak izateaz aparte, solidariagoa, ez hain menpekoa eta bere etorkizunaren jabea den komunitatearen eraketa bilatzen dugu.

Euskadi-Euskal Herria, bere etorkizuna Europan era aske eta arduratsuan erabakitzeko ahalmena nahi duelarik, Herri moderno da, irekia eta europar batezbestekoa baino altuagoak diren bizi baldintzak dituena. Hala ere, bortizkeriaren jarraipenak eta euskal gizartearen borondate eta nahiaren kontra harturiko zenbait erabakiren eskutik, gure herriaren elkarbizitza eta egonkortasun politikoa kinka larrian daude.

ETAri, behin berriro ere, eskari irmo eta argia luzatzen diogu: hilketak alde batera utzi, eta utz diezaiola Euskal Herriari bere etorkizuna erabakitzen. Euskal eraikuntza sozial eta nazionala bide demokratikoen, askatasunaren eta hiritargoaren borondate eta erabakiaren ildotik egin behar baita, bortizkeria baztertuaz eta pertsona guztien giza eskubideak errespetatuaz eta errespetaraziaz, baita askatasunaz gabeturikoenak ere.

Espainiar gobernuari, neurri horiek abian ipini dituzten alderdi politikoei eta epaile estamentuari adierazten diegu euren ekimenak demokraziaren eta aniztasun politikoaren usteltze larri eta eskandalagarria sortzen ari direla, izan ere, zuzen zuzenean egiten baitie eraso sistema demokratiko ororen askatasun oinarrikoiei, hala nola, ideologia, manifestapen, espresio edo elkartze askatasunei. Botereen zatiketa eza eta edozein demokrazia indartsu eta sendoren ordenamendu juridiko-penala gidatzen duen berme koadroaren iruzurra salatzen dugu.

Alderdien Legea askatasun publikoen kontrako sistemaren aurkako eraso berria da eta zigor-legeri bat sortzeko ahalegin berria ikus dezakegu, baina ez hiritarrarentzat, berdin pentsatzen ez duenarentzat baino. Bestalde, behin eta berriro zuzentzen eta zabaltzen diren ekimen judizialek, itxurazko juridikotasuna gordetzen baldin badute ere, oinarriko askatasunen usteltze larria dakarte, ez baitituzte errespetatzen Legebiltzarren, Batzar Nagusien edo Udalen moduko Erakunde Demokratikoak, eta oinarriko eskubide indibidualak zapuztu egiten baitituzte.

Guzti honen eraginez zera ondorioztatzen dugu: sistema demokratikoaren usteltze larria eta ezkutuko salbuespen estatua bizi dugula. Egoera honek, noski, ez du inolaz ere erraztuko gure Herriaren bakea eta normalkuntza politikoaren aldeko lana. Gizartean elkar-burruka sortzea nahi duten estrategiak dira; elektoralismo maltzur eta aitortu ezineko estrategiak dira; itxaropen ezaren, sufrimendua luzatzeko eta erabateko porrotaren aldeko estrategiak dira.

Ezinbestekoa da, eta lehenbailehen, benetako prozesu bat bultzatzeko eta garatzeko baldintza sozio-politikoak sortzea, beti ere konponbide politiko demokratikoetan oinarriturik. Garai zailak eta ilunak bizi baditugu ere, ezin dugu etsi, hautetsi bezala, gure herriaren aurrean, eta ezin dugu irtenbidea aurkitzeko esperantzarik galdu, ez gaude eta ezinezko zerbaiten aurrean.

Euskal hiritarrek eskubide osoa dute, dugu, bakea eta normalizazio politikoa lortzeko. Iraganean porrot egindako estrategiak alde batera utzi behar dira. Bazterreratze politiko eta sozialaren estrategiak demokrazi aurreko egoerara besterik ez garamatza. Ilegalizazio politikoak, indarkeriaren itxurak, eskubideak urratzeak, tortura ugartzeak irteerarik gabeko estrategia mugigaitz batera garamatza.

Euskal gizarteak eskatzen duen bezalako prozesu politiko eta bake prozesua abian jarri ahal izateko denon partehartzea behar da, gure aurrekoei zor diegu, gure artean ez daudenei zor diegu, euskal hiritar guztiei zor diegu, gure Herriaren alde egin dezakegun zerbitzurik onena dela jakin badakigulako.

Euskal Herrian, 2002.ko irailaren 18an.